

2017ko abenduaren 25etik 30era bitarteko aldizkarietan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratutako interes orokorreko xedapenak

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

2017/12/29ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.- Lan hitzarmen kolektiboak.-** 2017ko abenduaren 19ko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den notarioen eta horiekin jarduten duten langileen II. Hitzarmen Kolektiboan Prestakuntzarako Sektoreko Batzorde Parekatua eratzeako Akta. 15799 Xedapena - 2 or.

II.- XEDAPEN ARAUTZAILEA:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2017/12/25

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Kontularitza publikoa.-** 2017ko abenduaren 18ko Ebazpena, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, zeinaren bitartez aldatzen diren 2011ko azaroaren 17koa, Kontularitza Publikoaren Plan Orokorra Estatuko Administrazio Orokorrari egokitzea onartzen duena, eta 2016ko otsailaren 22koa, izaera materialeko Ondare Historikoko ondasunen urteko kontuak erregistratzeko, baloratzeko eta txertatu beharreko informazioari buruzko arauak ematen dituena. 15430 xedapena - 6 or.

2017/12/26

- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA.- Laguntzak.-** 2017ko abenduaren 19ko Ebazpena, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuarena, zeinaren bitartez argitaratzen den 2017ko azaroaren 28ko Ebazpena, Administrazio Kontseiluarena, 2017koa martxoaren 6koa aldatzen duena; azken horrek ezartzen ditu industriaren sektoreko ETE-etan eta enpresa handietan eraginkortasun energetikoaren alorreko jardueretarako laguntza programaren bigarren deialdiko oinarri arautzaileak. 15513 Xedapena - 2 or.
- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA.- Laguntzak.-** 2017ko abenduaren 19ko Ebazpena, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Administrazio Kontseiluaren 2017ko azaroaren 28ko Ebazpena, trenbide sektoreko eraginkortasun energetikoaren alorreko jardunbideetarako laguntzen programaren oinarriak eta deialdia, 2015eko urriaren 27koa, onartzen dituena. 15514 Xedapena - 2 or.

2017/12/27

- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA.- Energia elektrikoa.-** Abenduaren 22ko ETU/1282/2017 Agindua, zeinaren bitartez ezartzen diren energia elektrikoaren sarbide ordainsariak 2018. urterako. 15521 Xedapena – 16 or.
- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA.- Gasaren sektorea.-** Azaroaren 22ko ETU/1283/2017 Agindua, zeinaren bitartez ezartzen diren hirugarrengoak gas instalazioetarako sarbideari lotutako ordainsariak eta kanonak eta araututako jardueren ordainsaria 2018. urterako. 15522 Xedapena – 21 or.
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.- Zirkulazioa. Neurri bereziak.-** 2017ko abenduaren 22ko Ebazpena, Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzarena, zeinaren bitartez ezartzen diren 2018an zehar Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak. 15523 Xedapena – 10 or.

2017/12/28

- **NEKAZARITZA ETA ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMENEN MINISTERIOA.- Nekazaritza-ustategiak.-** Abenduaren 22ko APM/1290/2017 Agindua, zeinaren bitartez finkatzen den 2018. urterako erreferentziazko errenta. 15611 Xedapena – 1 or.
- **JUSTIZIA MINISTERIOA.- Segurtasun informatikoa.-** Abenduaren 14ko JUS/1293/2017 Agindua, zeinaren bitartez onartzen den Informazioaren Segurtasun Politika administrazio elektronikoaren eremuan. 15662 Xedapena – 9 or.

2017/12/29

- **ESTATUAREN BURUZAGITZA**
 - **Euskal Autonomia Erkidegoa. Kontzertu Ekonomikoa.-** Abenduaren 28ko 10/2017 Legea, zeinaren bitartez aldatzen den maiatzaren 23ko 12/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duena. 15713 Xedapena – 25 or.
 - **Euskal Autonomia Erkidegoa. Kupoa.-** Abenduaren 28ko 11/2017 Legea, zeinaren bitartez onartzen den Euskal Herriaren kupoa ezartzeko metodologia 2017-2021 bosturterako. 15714 Xedapena – 9 or.
 - **Prozedura zibila.-** Abenduaren 28ko 12/2017 Legea, zeinaren bitartez aldatzen den urriaren 5eko 42/2017 Legea, Prozedura Zibilaren urtarriaren 7ko 1/2000 Legearen berrikuntzarakoa, Zerga Ministerioaren komunikazio ekintzen eraginkortasuna bermatzeko. 15715 Xedapena – 2 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOA.- Kontratazio administratiboa.-** Abenduaren 26ko HFP/1298/2017 Agindua, zeinaren bitartez argitaratzen diren kontratu moten mugak sektore publikoaren kontratazioari dagokionez, 2018ko urtarriaren 1az geroztik. 15717 Xedapena - 2 or.
- **LEHENDAKARITZA ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA.- Aireko zirkulazioa.-** Abenduaren 15eko 1036/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez arautzen den urruneko kontrol bidez gidatutako aireontzien erabilera zibila

eta aldatzen den ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua, airearen Araudia eta aire nabigazioko zerbitzuetarako eta prozeduretarako xedapen eragile komunak eta urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aire Zirkulazioko Araudia onartzen duena. 15721 Xedapena - 33 or.

- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.- Plan Estatistiko Nazionalea.** Abenduaren 22ko 1043/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez onartzen den 2017-2020 Plan Estatistiko Nazionalaren 2018ko urteko programa. 15722 Xedapena - 253 or.
- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.- Estatu Zorra.** Abenduaren 27ko EIC/1300/2017 Agindua, zeinaren bitartez ezartzen den Estatu Zorraren sorrera 2018a eta 2019ko urtarrila bitartean eta baimena ematen zaien Estatuko diruzaintzaren kudeaketarako eragiketei. 15723 Xedapena - 16 or.
- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.- Nazioarteko merkataritza azokak.** 2017ko abenduaren 18ko Ebazpena, Merkataritzako Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bitartez onartzen den nazioarteko merkataritza azoken egutegi ofiziala 2018. urterako. 15819 Xedapena - 3 or.

2017-12-30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA**
 - **Zerga eta gizarte neurriak.** Abenduaren 29ko 20/2017 Errege Lege Dekretua, zeinaren bitartez luzatzen eta onartzen diren zenbait zerga neurri eta beste zenbait presako neurri gizarte-alorrean. 15836 Xedapena - 4 or.
 - **Balio merkatua.** Abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretua, balioen merkatuaren alorrean Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko araudira egokitzeko presako neurriei buruzkoa. 15837 Xedapena - 28 or.
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA**
 - **Zerga prozedurak. Antolamendua.** Abenduaren 29ko 1070/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den zerga kudeaketa eta ikuskaritzako ekimenak eta prozedurak eta zergak aplikatzeko prozeduren arau komunaren garapena, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bitartez eta Zergadunen Babeserako Kontseilua arautzen duen azaroaren 13ko 1676/2009 Errege Dekretuaren bitartez onartua. 15838 Xedapena - 32 or.
 - **Zerga sistema. Diru-bilketarako Araudi Orokorra.** Abenduaren 29ko 1071/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez arautzen den Diru-bilketarako

Araudi Orokorra, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak onartua. 15839 Xedapena - 20 or.

- **Zergak. Erregimen zigortzailea.-** Abenduaren 29ko 1072/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den zerga erregimen zigortzaile orokorra, urriaren 15eko 2063/2004 Errege Dekretuak onartua. 15840 Xedapena - 6 or.
- **Bide administratiboko berrikusketa.-** Abenduaren 29ko 1073/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den abenduaren 17ko 58/2003 Legearen garapeneko Araudi Orokorra, bide administratiboan berrikusteari dagokionez, maiatzaren 13ko 520/2005 Errege Dekretuaren bitartez onartua. 15841 Xedapena - 11 or.
- **Zerga neurriak.-** Abenduaren 29ko 1074/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez honako hauek aldatzen diren: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak onartua; Sozietateen gaineko Zerga Araudia, uztailaren 10eko 634/2015 Errege Dekretuak onartua, eta Ondorengotzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Araudia, azaroaren 8ko 1629/1991 Errege Dekretuak onartua. 15842 Xedapena - 13 or.
- **Zerga neurriak.-** Abenduaren 29ko 1075/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez honako hauek aldatzen diren: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartua; Ondare Transmisioen eta Dokumentatutako Ekitaldi Juridikoen gaineko Zerga Araudia, maiatzaren 29ko 828/1995 Errege Dekretuak onartua; Zerga Berezien Araudia, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bitartez onartua; Negutegi Efektuko Gas Fluoratuen gaineko Zergaren Araudia, abenduaren 27ko 1042/2013 Errege Dekretuaren bitartez onartua; fakturazio betebeharrak arautzen dituen Araudia, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartua; abenduaren 29ko 3485/2000 Errege Dekretua, frankiziei eta erregimen diplomatikoen, kontsularren eta nazioarteko erakundeen salbuespenei buruzkoa, eta Ibilgailuen Araudi Orokorraren aldaketari buruzkoa, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bitartez onartua; eta uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua, zeinaren bitartez onartzen den zergen kudeaketa eta ikuskaritzarako jarduera eta prozedurei eta zergen aplikazio prozeduren arau komun garapenari buruzko Araudi Orokorra. 15843 Xedapena - 42 or.
- **Enpresa eta lanbide jarduerak. Errolda aitorpena.-** Abenduaren 29ko HFP/1307/2017 Agindua, zeinaren bitartez aldatzen den apirilaren 26ko EHA/1274/2007 Agindua, onartzen dituen enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen alta, aldaketa eta baja egiteko errolda aitorpenaren 036 eredu eta enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen alta, aldaketa eta baja egiteko errolda aitorpen sinplifikatuaren 037 eredu; azaroaren 23ko EHA/3434/2007 Agindua, onartzen dituen hileko autolikidaziorako 322 eredu, banakakoa, eta hileko autolikidaziorako 353 eredu, eredu erantsia; eta abenduaren 29ko EHA/3786/2008 Agindua, onartzen duena balio erantsiaren gaineko zergaren 303 eredu, autolikidaziorakoa. 15844 Xedapena - 43 or.
- **Zerga informazioa.-** Abenduaren 29ko HFP/1308/2017 Agindua, zeinaren bitartez aldatzen diren: abenduaren 29ko EHA/3514/2009 Agindua, maileguen eta kredituen gaineko eta ondasun higiezinekin zerikusia duten finantza eragiketen aitorpen informatiboa egiteko 181 eredu onartzen duena; irailaren 4ko HAP/1608/2014 Agindua, kapitalaren edo inbertsio kolektiboko

erakundeen ondarearen ordezkaritza akzioen edo partaidetzen aitorten informatiboen 187 eredu onartzen duena; 1999ko azaroaren 17ko Agindua, zeinaren bitartez onartzen diren diru-sarreraren aitorten-agiriaren 128 ereduak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 188 eredu, establezimendu iraunkorrei dagokienez, higigarrien kapitalaren errenta edo etekinekin lotura dutenak -kapitalizazio eta bizitza aseguru edo elbarritasun aseguruaren kontratu eragiketetatik datozenak-; abenduaren 1eko EHA/3377/2011 Agindua, zeinaren bitartez onartzen den 193 eredu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kapital higigarriaren hainbat etekinen gainean eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergaren errenta jakin batzuen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena; azaroaren 23ko EHA/3895/2004 Agindua, zeinaren bitartez onartzen den 198 eredu, aktibo finantzarioekin eta beste higigarrien balio batzuekin egindako eragiketen urteko aitortzea; eta urriaren 25eko HAP/1695/2016 Agindua, zeinaren bitartez onartzen den 289 eredu, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz urtero egin beharreko aitorten informatiboa, eta zeinaren bitartez aldatzen diren beste zerga arau batzuk. 15845 Xedapena - 19 or.

- **SUSTAPEN MINISTERIOA.- Lurreko garraioak.-** Abenduaren 29ko 1076/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen diren Lurreko Garraioen Antolamendurako Legearen Araudiaren arau osagarriak; Lege hori irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen, ibilgailuak gidariarekin alokatzeko baimenen ustiapenari dagokionean. 15847 Xedapena - 2 or.

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA**

- **Lanbide arteko gutxieneko soldata.-** Abenduaren 29ko 1077/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez finkatzen den zein den 2018. urterako lanbide arteko gutxieneko soldata. 15848 Xedapena - 4 or.
- **Kontratazioa jatorrian.-** Abenduaren 28ko ESS/1309/2017 Agindua, zeinaren bitartez luzatu egiten den 2012rako jatorriko kontratazioen kudeaketa kolektiboa arautzen zuen urtarrilaren 5eko ESS/1/2012 Aginduaren indarraldia. 15849 Xedapena - 2 or.
- **Gizarte Segurantzak.-** Abenduaren 28ko ESS/1310/2017 Agindua, zeinaren bitartez aldatzen den 1970eko irailaren 24ko Agindua, Norbere Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituenak. 15850 Xedapena - 3 or.

- **LEHENDAKARITZA ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA**

- **Antolamendua. Gizarte Segurantzak.-** Abenduaren 29ko 1078/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen diren otsailaren 4ko 138/2000 Errege Dekretuan onartutako Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Araudia, eta maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Ordenako arau-hausteen ondoriozko zigorrak ezartzeko eta Gizarte Segurantzaren kuoten likidazio espedienteetarako prozedurei buruzko Araudi Orokorra. 15853 Xedapena - 13 or.

- **Gizarte Segurantza. Prestazioak.-** Abenduaren 29ko 1079/2017 Errege Dekretua, Klase Pasiboen pentsioen balioa handitzeari buruzkoa, Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioei buruzkoa eta beste gizarte prestazioei buruzkoa, 2018. urteari dagokionez. 15855 Xedapena - 47 or.

• OSASUN, GIZARTE ZERBITZUAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA

- **Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta Emateko Sistema.-** Abenduaren 29ko 1082/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen den Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta Emateko Sistemaren pertsona onuradunentzako gutxieneko babes bermatua. 15857 Xedapena - 3 or.
- **Botikak.** Abenduaren 19ko SSI/1312/2017 Agindua, zeinaren bitartez zuzentzen diren azaroaren 28ko SSI/1157/2017 Aginduaren akatsak, Osasun Sistema Nazionalan botiken erreferentziazko prezioen sistema 2017an eguneratzen duena. 15859 Xedapena - 8 or.

EHAA (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala)<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cs2017000013>

2017/12/29

- **LEHENDAKARITZA.-** Abenduaren 22ko 5/2017 LEGEA, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. Urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak. 6289 Xedapena
- **OSASUN SAILA.-** 2017ko abenduaren 11ko AGINDUA, Osasun sailburuarena, zeinaren bitartez garatzen baita Euskadiko osasun zentroetako eta zerbitzuetako intzidentziak jakinarazteko sistema. 6290 Xedapena

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2017/12/29

- **FORU ARAUAK.-** Abenduaren 22ko 21/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko 2018ko Aurrekontua Betetzeari buruzkoa. 4695 Xedapena – 112 or.
- **FORU ARAUAK.-** Abenduaren 27ko 22/2017 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Eraikuntzen, Instalazioen eta Lanen gaineko Zerga aldatzen duena. 4699 Xedapena – 2 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2017/12/28

- **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 19ko 162/2017 FORU DEKRETUA, zeinaren bitartez eguneratzen diren bide azpiegituren sareko zenbait tarteren gaineko bidesariak 2018. urterako. 5 or.
- **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 19ko 164/2017 FORU DEKRETUA, zeinaren bitartez onartzen diren Foru Aldundiak titular dituzten bide azpiegituren pertsona fisiko erabiltzaileentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, 2018. urterako. 15 or.
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Abenduaren 18ko 2259/2017 FORU AGINDUA, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena, zeinaren bitartez onartzen den hiri izaerako ondasun higiezinaren Merkatuko Balio Probablea eguneratzeko euskarri gisa balio duen merkatu azterketa. 1 or.

2017/12/29

- **Ogasun eta Finantza Saila.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 19ko 152/2017 FORU DEKRETUA, zeinaren bitartez aldatzen diren lanaren errendimenduei aplikatu dakizkiekeen atxikipen ehunekoak. 3 or.

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2017/12/27

- **DIPUTATU NAGUSIA.-** Abenduaren 26ko 3/2017 Foru Agindua, zeinaren bitartez onartzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak 2018. urterako. 8896 Xedapena -42 or.

2017/12/28

- **DIPUTATU NAGUSIA.-** Abenduaren 12ko 24/2017 Foru Dekretua, zeinaren bitartez arautzen diren abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak, mendekotasun egoeran dauden Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustapenerako prestazio ekonomikoak. 8643 Xedapena - 33 or.
- **DIPUTATU NAGUSIA.-** Abenduaren 27ko 32/2017 Foru Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den zenbait zerga betebeharrak formalizatzen dituen Araudia. 8947 Xedapena - 5 or.

2017/12/29

- **DIPUTATU NAGUSIA.-** Abenduaren 19ko 26/2017 Foru Dekretua, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituen eta ekainaren 2ko

15/2015 Foru Dekretua aldatzen duena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa. 8935 xedapena – 3 or.

- **DIPUTATU NAGUSIA.-** Abenduaren 27ko 31/2017 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak zerga horretan eta Sozietateen gaineko Zergan kalkulatzeko 2018an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituen. 8948 Xedapena – 6 or.

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-**

- Abenduaren 18ko 550/2017 Foru Agindua, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Epe luzerako aurrezki planak. Urteko aitorpen informatiboa» izeneko 280 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezartzen dituen. 8748 Xedapena – 22 or.
- Abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredua onartu eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. 8915 Xedapena – 43 or.
- Abenduaren 28ko 554/2017 Foru Agindua, «Etxebizitza kontuak – Higiezinak birgaitzea – Higiezinen errentamendua. Urteko aitorpen informatikoa» izeneko 781 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezartzen dituen. 08916 Xedapena -59 or.

EBAO (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialerako sarbidea

- EUROPAR PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2017ko abenduaren 12ko 2017/2398 ZUZENTARAU (EB), zeinaren bitartez aldatzen den 2004/37/CE Zuzentaraua, langileak lanean eragile kartzinogeno edo mutagenoen eraginpean jartzearekin zerikusia duten arriskuen aurrean babesteari buruzkoa. L345 – 87

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-maila: informacion.juridica@mutualia.es

.....
MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO 26 - 48009 BILBAO

